

rra, P.G. Lertxundi, Metpjin, Mitxelena, Mukarovsky, Orpustan, Peillen, Rebuschi, Suzuko Tamura, Trask, Viers, Villasante, Yrizar, Zytsar, hizkuntzari buruz eskainia den lehen partean; eta Duvert, Garate, Oronoz, Telletxea Idigoras, Ugalde eta beste gainerako gaietan.

Orotara: 33 lan dira euskaraz idatziak, 14 gazteleraz, 10 frantsesez, 2 rusoz, 1 alemanez eta beste bat ingelesez. Anekdotak gisa esan dezagun, japonesa batek idazten duela ingelesez eta ingeles batek euskara hutsean eta ez edonolako lana.

Hor argitaratzen diren zenbait lan urte askotan ikerketak jarraituaz burutuak dira, euskal linguistika alorrean luzarorako oinarriak jarriko dituztenak. Eta, azkenik, esan dezagun, liburu hau argitaratzeaz Euskaltzaindiari zerbait zor badiogu ere, ez gutiago bere lanez hortarako meriturik aski lortu duen gizonari, bere omenez bildua denez.

Fr. LUIS VILLASANTE, OFM.—*Eliza. Kristau fedearen sustraiak*, III. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. Donostia, 1984.

Kristau fedearen sustraieri buruz Fr. Luis Villasantek idatzi duen obra hirukoitzaren azken parte da hau. Lehena *Jainkoa* (1962), bigarrena *Jesukristo* (1969) eta hirugarren hau *Eliza* deritzana.

Hara non oinarritzen den liburu honen edukina: Lehen kapituluan Eliz barnean gaur nabari diren zenbait joera adierazten dira. Bigarrenetik sartzen da Jainkoaren erresuman, gero Apostoluen auziaz, hierarkiazko karguak, San Pedoren

aintzintasunez, Elizaren lehen urratsak, Erromako burutza, Aita Sainduaren tokia Vatikanoko Lehenak eman zuen definizioz, Eklesiologiaren giltzarri den Apostoluen suzesioa atxikitzez, Apezpikuen kolejialtasunez Vatikanoko II.ak irakatsi zuen arau-eraz, Kristiandadepeko kondaira gertakari eta istiluak interpretatuz, hamabitik hamabost kapituluetan Eliz Irakasgoaren auziaz, elizaren zertarakotasunaz. Horreraino Teologia Fundamentalaren metodoz aztertzen du (batipat honen ikuspegiz hartzen bait da Eliza liburu honetan). Hamazazpigarrenean Eliza fedezko misteriotzat zer den adiaraziz dator, gero Elizaren ezaugarriez, erlijioso bizitzaz, apaiza gaurko munduan, Eliz egiturako tentsioak eta Elizaren amatasunez.

21 x 15,5 neurritz 412 orrialdez osatzen den liburu mardula, apaingarriz eta argazkiz ere oso jantzia dator.

Edonorri aitortu beharrezkoa zaigu Instituzio bezala Elizak duen iraupena harrigarria ez ezik historian beste ezerk ez bezalakoa gertatu dela eta bere funtsean fede sendo bati zor zaiola. Beste gauza bat da gure egunotan eskatzen zaion gaurkotasuna. Alde honi garrantzi guti emango dio egileak, zeren badaki instituzio iraunkortasunaren berri. Hala ere, liburuaren lehen partean agertuko ditu zenbait eritzi: «Badakit egun gaurkotasuna bilatzen dela. Baina gaurkotasuna ez dago bakarrik gauza berriak esatean: gaur gogoratzea komeni den gauzak esatean ere bai».

Vatikanoko II.a eta Holandako kontsilioaren arteko eritziak ere emango dizkigu: «Vatikanoko II.aren orientazioa supernaturala da, Jainkoari buruzkoa; eta alderdi antropozentrikoa ondorio bezala dator. Holandako Kontsilio Pastoralean, berriz, gizonagan hasten eta bukatzen da dena».

Une horietan «Teología de la Liberación» deritzana ere kontutan hartzen du. Oraiko moda hortaz 40. orrialdetan emango digu bere eritzia, «Liberazio» teologiaren zentzu semantikoa argituz. Izan ere zer besterik izan da kristautasuna Jainkoari errendaturik egotean gizon bakoitzaren libertatea eta lagunurkorik ez menperatzea baizik? Hortarako, izpiritu berri bat ekarri zuen mundura, 47. orrialdean adieraziko digunez.

Argi dago egilea fede sendo baten barnean dagoela. Hala ere idekitasun handiko gizona ageri da. Agnostikotasuna, uler-tu ez ezik, oso normaltzat hartzen du; baina ezeptikotasuna ezinezkoa iduritzen zaio. Bizitzaren izateak berak kezkatzen bai du gizona. Tartean pluralismoa ere aipatuko digu, edo-nork haintzat hartzekoa denez.

Aspaldiko gaia izanik, gaurkotasunik ezin zaio ukatu. Bide horietatik zerbait apartetxo gabiltzanontzat ere badu zer irakatsi. Eliza gaiaz jakintzaz beteriko liburu irakurgarria. Hiz-kuntza ordea, aberatsa eta aldi berean argia eta erraza, egile prosalari bikaina denez.

ZOFIA SZLEYEN.—*Czekajac na lubego. (Poezja miłosna dawnej Hiszpanii)*. Wybrała, przelożyła i opatrzyła pos-
lowiem. Wydawnictwo Literackie. Kraków, 1981.

Krakobian agertu zen Hispaniako poesiaren bilduma hau. Gaztela, Portugal, Galizia eta Kataluñako hizkuntzetako poe-sien artean dator Euskal Herrikoaren presentzia ere. Beti ere on da herbestekoez gure literaturatik zer hautatzen duten ja-kitea. Lehenago alemanera Frey eta Brettschneider-ek itzuli eta argitaratuaren berri eman genuen (ikus *Egan*, 1983. urtekoa bere 219. orrialdean) eta orain Jan Braun euskalariak polakora itzuliz argitaratuaren berri dakargu.

Euskal Herrikorik lau poema baizik ez dira, XVII. mende-kotzat jotzen ditugun balada eta erromantzeak.

Jan Braun-ek itzuliak, seguruaski ber-berak hautatuak, li-buruaren 135-144. orrialdeak osatzen dituzte, izenburu honen pean: «Ballady i Romance baskijskie, Wiek XVII (Przekłady dokonane przy współpracy filologicznej doc. dra Jana Brauna)».

Hara hemen zeintzuk osatzen duten: *Narzczone z Atharratz* (Atharratzeko ezkongai); *Pierwszy kwiat* (Lehen floria);